

Maite Arruabarrena Unanue Erreterria lau haizeetara!

Itziar Gomez



Maite Arruabarrena Unanue mezzo-sopranoa da, eta batez ere opera-kantaria. Maitek dio kantuak hautatu zuela bera. Erreteriarra izateak ere baldintzatuko zuen bere ibilbidea. Erreterria eta musikaren arteko maitasun harremana aspaldikoa baita.

Kantatzea da ahoarekin soinuak sortzea eta hauek modu harmoniatsuan jostea melodia bat osatuz. Eta helburua izan ohi da entzulea hunkitzea eta liluratzeari; horretarako dohain berezia dauka Maite Arruabarrena mezzo-sopranoak. Mundu zabalean erakutsi du bere kanturako artea eta kritika onenak jaso ere bai.

Txikitan hasi zen abesten Jose Luis Ansorenaren eskutik Erreterriako Orereta haur abesbatzan, gero Oinarrin aritu zen, eta aurrerago, Andra Marin. Hasiera-hasieratik ikusi zuen Jose Luis Ansorenak bere talentua eta Maitek gazte-gaztetandik ekin zion bakarlari bezala kantatzeari eta ikasteari. Kantuaren munduan murgildurik Italiara joatea erabaki zuen eta Claude Thiolas maisuarekin osatu zituen bere kantu ikasketak. Bide honetan, Italiako Toti dal Monte sari ospetsua irabazi zuen eta horixe izan zen nolabait bere

ibilbide profesionalaren abiapuntua. Hortik aurrera han eta hemen, gure mugetatik at ibili da bere artea erakusten. Ahots ederra eta teknika egokia ezinbesteko dira ondo abesteko, eta Maitek horiez gain agerian ditu talentua eta abesteko gustua ere. Aditu askok dioten moduan Maite Arruabarrena jendearengana ailegatzen da eta horixe da artista izatea, artea zabaltzea gainontzekook goza dezagun.

Igande arratsalde batean bota diot galdera zaparrada eta hemen bere eskarmentutik erantzundakoak.

–Nola gogoratzen dituzu zure hasierak kantuaren munduan?

Zazpi urterekin hasi nintzen Orereta abesbatzan. Jose Luis Ansorenak ikastolako hurrekin abesbatza sortu nahi zuen eta lagunak eta ni han joan ginen proba egitera. Oso ondo gogoratzen dut proba hura, zorionez gainditu genuen eta hura izan zen nire hasiera. Handik aurrera hazten joan zen nire kantuarekiko maitasuna. Orereta abesbatzetik Oinarrira pasatu nintzen eta handik Andra Marira.



Andra Mari abesbatzarekin Musikasten (2009).

–Zer zen zuretzat hasiera hartan kantatzea?

Plazera dudarik gabe. Ez zen inoiz joko bat izan, musika bokalak erabat erakarri ninduen hasiera-hasieratik eta lagunek korua utzi izan balute ere, nik berdin-berdin jarraituko nuen.

–Beraz, hasiera haiek lotuta egon ziren beti Jose Luis Ansorenarekin. Zer izan da zuretzat Aita Ansorena?

Oso pertsona inportantea nire musika ibilbidean. Jose Luis Ansorenak erakutsi zidan kantua eta musika maitatzen. Bere eskutik jabetu nintzen gizakiok zenbat transmititu dezakegun ahotsaren bidez. Nire lehen musika-maisua izan zen, apaltasun osoz eta modu maitakorrean tratatzen gintuen kantariak, baina baita modu zorrotzean hala behar izan ezker. Ansorena musiko handia da eta asko ikasi nuen bere ondoan. Nire eskerrik beroenak hemendik.

–Jose Luis Ansorenak jaso berri du Eusko Ikaskuntzaren «Manuel Lekuona» saria.

Bai, sari merezia inondik inora, musikari handia da eta lan bikaina egin du urteetan zehar. Erreterria musika koral munduan aintzindari izan da bere lanari esker. Berak sortu zituen Andra

Mari abesbatza, haurren Orereta abesbatza, gazteen Oinarri... Eresbil musika artxiboa ere berak bultzatu zuen, euskal konpositore askoren lana ezagutzera emanez.

–Abesbatzan kantari eta berehala bakarlari, nola izan zen pauso hura? Zer sentitzen zuen neska gazte batek jendaurrean kantatzen?

Egia esan, oso azkar hasi zen Jose Luis bakarkako zatitxoak niri eta beste gaztetxo batzuei eskaintzen. Jendaurrean lehenengo aldiz Donostiako Udaletxeko Areto Nagusian abestu nuen, Gabonak ziren, eta urduritasunak ez zidan utzi ahotsa kanporatzen ia. Oso ondo oroitzen dut sentsazioa, 8 urte izango nituen, pentsa!

Egia esan, pertsona bezala indartu egin ninduen bakarlari gisa hasteak, beste arlo batzuetan segurtasunik ez zuen neskato bat bezala sentitzen nintzen, eta jendaurrean aritzeak bultzada handia eman zidan. Berehala jabetu nintzen zeinen ederra den jendea hunkitzea kantua bidez, ikaragarri betetzen du horrek. Hartu eman berezia da, bete-betea.

–Musika ikasketak Erreterian hasi zenuen Silbi maisuarekin bere etxean, gero

Donostiako udal kontserbatorioan; Nola gogoratzen dituzu garai haiek?

Esfortzu handikoak izan ziren. Eskolatik kanpo musika ikasketak egitea ez zen samurra izan, baina argi nuen ikasketa horiek egin nahi nituela kosta hala kosta. Musikarako zaletasuna eta dohaina agertzen nuela uste dut eta ikasketak egitea zen bide horri heltzeko bidea.

–Eta bidean Juanito Eraso Baztango kantu irakaslea ere izan zenuen. Nolakoak izan ziren eskolak berarekin?

Une haietan interesgarriak eta estimulatzaileak. Izugarri maite zuen ahotsa gizon hark, musikarekiko sentiberatasun handikoa zen, baina bere izaera eta nirea ez ziren bateragarriak eta azkenean ilusioz hasi nuen bide hura ez zen bukatu espero bezain ondo. Dena den, aurrera begira honek ikasketa bat ere eman zidan, noski.

–Noiz hasi zen Maite Arruabarrena pentsatzen kantua izango zela bere bidea?

Nik uste txikitatik ulertu nuela kantua toki berezia izango zuela nire bizitzan. Baina nire lanbide bihurtuko zela, berriz, ez nuen argi ikusi nahiko berandu arte; zalantza handiak izan nituen beti.

Jende askok esaten zidan kantua nuela bidea, baina nik oso konplikatua ikusten nuen, beldur handia ematen zidan pausoa emateak eta gero gauzak ondo edo espero ez bezala ez ateratzeak. Errealista nintzen edo agian pixka bat beldurtia ere bai, pentsatzen nuen kantuz bizitzea oso zaila zela eta horregatik atera nuen Psikologiako lizentziatura. Kantuaren ikasketak ez nituen baztertu, baina Unibertsitateak lehentasuna izan zuen une hartan niretzat.

–Zeuk erabaki zenuen kantua edo hark hautatu zintuen?

Hark hautatu ninduela pentsatu dut beti. Badakit ikuspegi erromantikoegia dela, baina kantuari diodan errespetuak ez dit inoiz utzi erabaki hori seriozki hartzen.

–Eta gero, Italiara, eta han sari garrantzitsu bat irabazi. Nola iritsi zinen hara?

Ia aldi berean bukatu nituen Psikologiako ikasketak eta kantukoak Donostiako Orfeoiko kantu-eskolan. Orduantxe Bartzelona aldean zenbait kontzertu egiten hasia nintzen. Eta iritsi zen unea; erabaki bat hartu behar nuen.

Kantuko bi ikaskide Italiara zihoazen Claude Thiolas irakasle ospetsuarekin hamabost eguneko ikastaro bat egitera, eta azkeneko momentuan,

haiekin joatea erabaki nuen. Funtsezkoa zen niretzat aditu hark niri kantatzen entzutea eta bere iritzia jakitea. Iruditzen zitzaidan Italiako lirika munduan hain sartuta zegoen irakasle batek irizpide argia izango zuela. Beraz, pentsatu nuen, hara joan, irakasle hark nire ahotsaz zer esaten zuen entzun, eta horren arabera erabakiko nuela.

Eta bitxia izan zen, irakasleak hasieratik interesa agertu zuen eta “Toti dal Monte” lehiaketara aurkezteko proposamena egin zidan. Horrela ba, elkarrekin lanean hasi ginen eta handik bost hilabetetara lehenengo saria irabazi nuen.



Maite Arruabarrena Orfeo operan.

-Italian kantu lirikoa eta musika klasikoa oso bestela bizi dutela ematen du, tradizio handiagoa dagoela. Nola sentitu zinen han? Zer eman zizun Italiak?

Bai, opera arloan tradizio handiko herria da Italia, hangoak dira opera konpositore ospetsuenak eta italiarrak oso harro daude horretaz.

Harrera ona egin zidatela esango nuke, eta han igaro nituen urte haietan asko ikasi nuen, maisu eta lankide onak izan nituelako batez ere, baina baita Italian artea bazter guztietan arnasten delako ere.

-Zer falta dugu hemen musika kulturari?

Tradizioz herri abeslaria da gurea, baina batzuetan kontsiderazioa falta izan zaigula esango nuke. Zorionez, egoera aldatuz joan da pixkanaka eta uste dut gaur egun, ez duela inork zalantzan jartzen musikak zer nolako garrantzia duen gure herriaren garapen intelektualean eta ongi izatean, ezinbestekoa da musika ere herri batek aurrera egiteko. Ahalegin handiak egin dira bide horretan; Musikene dugu adibide bat.

-Behar bezala estimatua sentitzen zara zure herrian?

Bai. Erreteriak beti agertu dit nire musika jardueretik poza eta harrotasuna. Herrian abestu izan dudanean maitatua sentitu naiz eta ni ere saiatzen naiz kantuaren bidez erakusten nire esker ona.

-Emakume batentzat eta gizonezko batentzat, berdina da bidea? Oztopo gehiago ditu emakumeak?

Bidea berdina dela esango nuke, hau da, ikasketa garaian eta lanbidearen lehen pausoetan ez dago alderik gizonezkoa edo emakumezkoa izan. Baina behin honetan hasita, lan honek behartzen zaitu maiz egotera etxetik kanpo, bidaia asko egitera... eta familia bat sortzeko garaia iristen denean, emakumeak zailtasun handiagoak ditu. Horregatik, emakume abeslari batzuk haurrik ez izatea erabakitzen dute, bat baino gehiago ezagutu ditut. Gizonezkoek ez dute horrelako kezkarik, gogorra egiten zaie, noski, familiagandik urrun egotea, baina ez da berdina.

-Erreteriatik irten zarete abeslari ugari; Itziar Martinez, Itziar Lesaka, Maria Mendizabal. Izan duzue zuen artean harremanik?

Lauak Andra Mari abesbatza osatu gara kantari gisa, baina denboraldi desberdinetan. Itziar Martinezekin izan dut harremanik handiena, askotan abestu genuen elkarrekin.

-Ainhoa Arteta ere zure garaikidea da. Non ezagutu zenuen?

Bai, urte berekoak gara. Ainhoa txikitatik ezagutzen dut biak ibiltzen ginelako kontzertu eta lehiaketa berdinetan bakarlari gisa, bera Tolosako Eresoinka abesbatzarekin eta ni Olereta ikastolakoarekin.

Geroago, Donostiako Udal kontserbatorioan ere topo egin izan dugu.

Bilbon abestu genuen elkarrekin lehenengo aldiz, Rossiniren opera batean, eta handik aurrera, beste hainbat alditan izan dut berarekin abesteko aukera.



“Manon” operan.

–Beste neska askori bidea zabaldu diezu, baduzu horren kontzientzia?

Egia esan, ez dut inoiz horretan pentsatu, eta jabetu ere ez. Baina horrela bada, espero dut kantuaren bideari ekin eta ez daitezela damutu. Eta nahi nuke nik izan dudana suertea izatea haiek ere.

–Zer da kantuaren mundu horretan zailena?

Beti ikuslegoaren kritikapean egon beharra. Musikariok, eszenatoki baten gainean jartzen garen aldiro jaso behar dugu entzuleen oniritzia eta horrek presio handia sortzen digu. Bestalde, etxetik kanpo egon beharra, familia eta lagunengandik urrun, hori ere gogorra egiten da.

–Eta orain irakasle ere bai Musikenen. Nola aldatzen da ikuspegia alde batean egon edo bestean?

Uste dut ikuspegi berdina mantentzen dudala bi kasuetan. Eskola ematen dudanean abeslari sentitzen jarraitzen dut eta abesten ari naizenean ikasle, ezin dira bi aldeak bereiztu. Ze kantuan eta musikan, eta agian bizitzaren beste ataletan ere, ez baikara sekula iristen erabateko jakinduriara. Ikasleak abeslari kontsideratzen ditut beti eta ni neu ikasle, hainbeste ikasten dut uneoro haiekin!

–Zerk betetzen zaitu gehiago? Kantatzeak edo irakasteak?

Betetze modu desberdinak dira eta ez zait erraza egiten biak alderatzea.

Kantatzeak, musika egiteak, emozio paregabeak sortzen dizkit, deskribatzen zailak diren emozioak, sakonean ukitzen zaituztenak.

Eta nire irakaskuntzari esker, nire ikasleek ere emozio horiek sentitzen badituzte, ez dago niretzat poz handiagorik.

–Orain neska gazteek zuek izan zenuena baino errazagoa daukate?

Errazagoa daukate ikasketak egiteko garaian. Gaur egun kantua ikasteko aukera handiagoak daude nire garaian baino, ez dute derri-gorrezkoa urrutira joatea goi mailako prestakuntza bat edukitzeko, eta gainera, teknologia berriei eta komunikabideen garapenari esker, informazio ikaragarria dute eskura ikasleek.

Baina lehia ere handiagoa da orain. Gaur egun abeslari gazte oso onak daude, ahots bikaina eta prestakuntza hobea dute, ez da erraza hainbesteren artean tokitxo bat aurkitzea. Izaera

sendoa behar dute animoa eta konfiantza ez galtzeko.

–Zer da kultura herri batentzat?

Pertsona batentzat den berbera: bere izpirituaren aberastasun iturria.

–Zerekin gozaten du gehien Maitek?

Zorionez, gauza askorekin gozaten dut: Familiarekin egoten, liburu eder bat irakurtzen, paisaia polit bat ikusten, senarrak prestatutako jaki goxoren bat jaten... eta musikarekin, noski, bereziki musikarekin.

–Erreterria esan eta zer datorkizu gogora?

Familia, lagunak, Orereta ikastola, Andra Mari abesbatza, Eresbil, kantua...

Eta Maite Arruabarrena Unanuek esandakoak geratzen zaizkigu barru-barruan, bere ahotan entzundakoak dutelako argi berezia. Eta ikusita bere begien urdina, bere ilearen horia... gogora etortzen zait gure kondairak aipatzen digun Mari Anbotokoa, urrezko orrazearekin orrazten. Mari zelako gure herrikoa, eta zelako ausarta. Eta horrelakoxea dugu Maite; eme, kantari, ama eta ausarta. Eta gu, poz-pez erreteriarra dugulako. Bide luzea dauka oraindik osatzeko... eta guk berarekin gozatzeko! Bejondeizula!

